

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AMURRIOKO UDALA****Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 16011P-51/2016)**

Administrazio egintza jakinaraztea honi: Nafi Jatri El Heja.

Erabaki hau ezin izan zaio interesdunari jakinarazi, orain duen helbidea ezezaguna delako. Beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko, aurretik eta aukeran ALHAOn eta udal honetako iragarki taulan argitaratu ostean, iragarki hau BOEn argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 16/270P Ebazpena interesdunari. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko irailaren 8an ebazpena (16/270P Dekretua) eman zen. Zuri dagokizunez, ondokoa jasotzen du:

S. S. J. Z.k, Lezama kaleko 1. atariko etxebizitzaren jabeak, 2016ko abuztuaren 31n aurkeztutako idazkiaren bidez udalari jakinarazi dio Nafi Jatri El Heja udalaren biztanle erroldan arauz kanpo erroldatuta dagoela, ez baita aipatutako etxebizitza horretan bizi eta, hortaz, ez baititu betetzen Biztanle eta lurralde mugei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutako betekizunak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu, eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi adierazitako helbide horretan.

Bat etorri aipatutako Arautegiaren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionaleko Presidenteak eta Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean elkarrekin emandako Ebazpenean xedatutakoarekin, zeinak jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal erroldaren kudeaketari buruz, eta, bereziki, arauz kanpoko erroldatzeagatik baja emateari buruzko atalean ezarritakoarekin, bai eta alkatetzat honek orokorki aplikatzekoa den gainerako legedian ezarritakoarekin, eta legez esleiturik ditudan ahalmenak baliatuz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko behean zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZEN-ABIZENAK:	AGIRIA
Nafi Jatri El Heja	72.841.192-P

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeke, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko irailaren 8a. Idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Alkatearen eta behin-behineko idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko irailaren 27a
Alkate lehendakaria
JOSUNE IRABIEN MARIGORTA